

NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA  
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA



ika

# ETXETIK PLAZARA

## BIDEA

## BIZIKLETAZ BIZI

**SARIA:**  
**ERRIGORA**  
Nafarroako  
produktuen  
sorta

2021eko EKAINA

173. ALEA

# IRAKURLAN

## BIDE GORRIAK

Europako Txirrindularien Federazioak (ECF, ingelesezko siglekin) bultzatuta, azkeneko 40 urte hauetan, Europan bizikletaz ibiltzeko ibilbide aunitz egokitu dira. Gure kontinentea aldenik alde zeharkatzen duten distantzia luzeko bideak dira, eta Eurovelo izena hartzen dute. Gaur egun, badira 16 luze, eta herrien artean bertze txiki batzuk ere prestatu dira. 2019ko bukaeran, baziren gutxi gorabehera 45.000 kilometro egokituta; hemendik epe motzera, denak amaituta izaten direnean, 90.000 kilometro izanen dira.

Eurovelo sarean sartzeko baldintzak honako hauek dira: %6tik gorako maldarik ez izatea; gutxienez bi bizikleta pasatzeko adinako zabalera izatea; batez beste, egunean 1.000 motordun ibilgailu baino gehiago ez izatea; gutxienez, luzeraren %80 zolatuta egotea; eta urte osoan irekita egotea. Hamasei bide horietatik, honako hauek azpimarratzen ahal dira: EV1, Atlantikoko ibilbidea (8.186 kilometrokoa eta Ipar lur muturretik Sagreseraino doana); EV2, Hiriburuen ibilbidea (5.500 kilometrokoa eta Irlanda, Erresuma Batua, Herbehereak, Alemania, Polonia, Bielorrusia eta Errusia lotzen dituena); Erromesen ibilbidea edo Donejakue bidea (5.122 kilometrokoa Norvegia, Suedia, Danimarka, Alemania, Belgika, Frantzia eta Espainia zeharkatzen dituena); EV4, Erdialdeko Europako ibilbidea (4.000 kilometro dituena); eta EV8, Mediterraneoko ibilbidea (5.388 kilometrokoa, Cadiz, Venezia eta Atenas lotzen dituena).

Gurera hurbilduz, Atlantikoko ibilbidearen barrenean kokatu behar da **Ederbidea** mugaz gaindiko sarea, eta, horren barrenean, guretzat hain ezaguna eta maitatua den **Bidasoko Bide Berdea**. Ederbidea Baiona, Donostia eta Iruñea hiriak elkartuko dituen zikloturismo bide sarea da, eta 240 kilometroko luzera du. Tarte gehienak zabalik daude, eta gelditzen direnak agudo akituko dituzte.

Proiektua Europako diru-laguntzarekin garatzen ari da, eta, bertan, Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroako administrazio nagusiek eta hainbat elkartek parte hartzen dute. Gure zatitxoari dagokionez, Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoari dagokio horren zaintza. Bide horren erditik, Doneztebetik, alegia, adar bat abiatzen da Donamariara, Urrotzera Labaienera, Saldiasera, Basaburuara... Imotzen, adar horrek topo egiten du Baiona-Donostiatik abiatzen den adarrarekin, horrela, Leitzaren bihotzetik pasatzean, Plazaola trenbidearen ibilbidea zeharkatuko du. Hortik, bat eginda, Irurtzun eta gero Iruñeraino. Atlantikoko ibilbidearen zatitxo horrek Portugaleraino izanen du bere jarraibidea eta helmuga.

Bidasoko Bide Berdea, Tren Txikitoak egiten zuen bidetik, Behobia eta Oiategi lotzen ditu (Elizondoraino luzatuko den trazaketa ere aurreikusita dago, bertze 15 kilometro gehiago). Ia aldarrik gabe bere 40 kilometroetan, Bidasoa ibaiaren bazterretik doa, eta herriak ikusteko aukera ematen du. Bidearen zoladura anitza da: kaskailua, asfaltoa eta zementua. Bideko tarte batzuk baserrietako eta lantegietako sarrerak dira. Bidasoa ibaiaren ubideak utzitako soinuez, ur-jauzien oihu poetikoaz, bidean agurtzera ateratzen diren animaliez, flora eta zuhaitzen koloreen bestaz... gozatzeko aukera ematen du bideak. Hori egiten duenak urtaro ezberdin eta hainbat kolore eta zaporeekin topo egiten du. Era aunitzetako hizkuntzek ere gure euskararekin bat egiten dute, euskarak txirrindulariari ongietorria ematen baitio.






## NONGO – NONDAR/NONGOTAR

Testuan, Europako hainbat hiri aipatu ditugu. Batzuetan, zalantza aunitz izaten ditugu euskaraz nola erran edo nola idatzi behar ditugun horiek. Euskaltzaindiak zenbait irizpide ezarri ditu munduko eta Europako eskualde historiko-politiko nagusiak arautzeko (154. araua, 157. araua...). Arauak beharrezkoak dira, bertan ageri baitira hizkuntz desberdinetara era egokian erabiltzeko zer aldaera izaten diren. Estatua, hiria edo herria abiapuntu hartuta, nongo eta nondar/nongotar kasuak sortzen ditugu (biztanlea, herritarra...). **Nongo kasua maiuskulaz idazten da** eta **nondar/nongotar**, berriz, **minuskulaz**. Ondorengo laukian hainbat paratu ditugu, eta bi zutabetan nongo eta nondar/nongotar paratu ditugu. Horietako batzuk kendu ditugu, zuk era zuzenean idatz ditzazun. Ea munduko eta Euskal Herriko pasaporteak lortzen duzun!

### NONGO izen bereziekin:

- Bokalez bukatzen diren izenekin -KO jarriko dugu: NafarroaKO, IgantziKO, ElgorriagaKO...
- R, S edo Z-z kontsonantez amaitzen direnek -KO eta -EKO erabiltzen ahal dira: LondresKO eta LondresEKO, EibarKO eta EibarrEKO, GasteizKO eta GasteizEKO...
- N edo L-z amaitutakoek -GO eta -EKO erabil daitezke: IrunGO eta IrunEKO, BerlinGO eta BerlinEKO, MadrilGO eta MadrilEKO...
- TZ-z amaitutako leku izen bereziek -KO hartzean T galtzen dute: ZarauzKO, UrrozKO... (-TZKO ez da onartzen.)



### HIRIA

### NONGO

### NONDAR/NONTAR

#### DONOSTIA

#### Donostiako

#### donostiar

MADRIL

\_\_\_ 1 \_\_\_

madrildar

BARTZELONA

Bartzelonako

\_\_\_ 2 \_\_\_

VALENTZIA

\_\_\_ 3 \_\_\_

valentziar

NORVEGIA

Norvegiak

\_\_\_ 4 \_\_\_

VENEZIA

\_\_\_ 5 \_\_\_

veneziar

DONEZTEBE

Doneztebeko

\_\_\_ 6 \_\_\_

GASTEIZ

Gasteizko

\_\_\_ 7 \_\_\_

BILBO

\_\_\_ 8 \_\_\_

bilbotar

LIZARRA

Lizarrako

\_\_\_ 9 \_\_\_

TXINA

\_\_\_ 10 \_\_\_

txinatar

ESTATU BATUAK

Estatu Batuetako

\_\_\_ 11 \_\_\_

BRITAINIA HANDIA

\_\_\_ 12 \_\_\_

britainiar

ERRUSIA

Errusiako

\_\_\_ 13 \_\_\_

DANIMARKA

Danimarkako


\_\_\_ 14 \_\_\_

# HITZAK DANTZAN

## BIZIKLETAREN ATALAK

Bizikleta mintzagai dugula, hiztegia pixka bat lantzeko aprobetxatuko dugu; garraio mota honen atalak ikasiko ditugu ariketa honetan. Den-denak ez ditugu ikusiko, baina garrantzitsuenak bederen hemen harrapatuko dituzue. Irudian, zenbakien bidez seinالاتu ditugu txirringaren parteak; beraz, zure egitekoa izanen da taulako izenak zenbaki horiekin erlazionatzea.

- |           |                       |           |                          |
|-----------|-----------------------|-----------|--------------------------|
| .....     | a) Gurpila            | .....     | i) Koadroa               |
| .....     | b) Plater-aldatzailea | .....     | j) Eskulekuko tutua      |
| ....1.... | c) Eserlekua / Zela   | .....     | k) Biela                 |
| .....     | d) Pedala             | ....5.... | l) Balaztaren heldulekua |
| .....     | e) Platerak           | .....     | m) Erradioak             |
| .....     | f) Eskulekua          | .....     | n) Pinoiak               |
| .....     | g) Gibeiko balaztak   | .....     | o) Haguna                |
| .....     | h) Aldagailua         | .....     | p) Aitzineko balaztak    |





# BITXILOREAK

## BIZIKLETAREN EUSKAL HERRIKO HISTORIA TTIKIA

Euria egiten duelarik barraskiloak tropelean ateratzen diren gisan, eguzki izpien (1) zantzuekin (2), halaxe ateratzen dira txirringulariak. Hori hala izan da, nolabait errateko, txirringulak argia ikusi zuenetik; beraz, gaur egun ere modu horretan gertatzea ez da gauza arraroa. Baina, azken urte honetan, zale-espezie zehatz (3) hori bortizki (4) ugalarazi duen fenomenoarekin egin dugu topo: bakarrik, binaka, taldetxoka, errepidean, mendian, giza-trakzioz zein sistema elektriko lagundurik... Nondik atera dira bizikleta-zale horiek guziak? Izurrite berri baten aitzinean al gaude? Atal honetan, bizikletaren hurbileko historiaren berrikuspen (5) ttiki bat eginen dugu, eta, bide batez, luzatutako galderei erantzuna ematen saiatuko gara. Gainera, testutxo hau geure euskara aberasteko baliatuko dugu: sinonimoak landuko ditugu. Hemen beheitian harrapatuko dituzuen sinonimoak xerkatu (6) beharko dituzue testuan:

**ERNE, SARIRAKO!**

- |                        |              |                      |                             |
|------------------------|--------------|----------------------|-----------------------------|
| a) ospetsuak, famatuak | e) sinbolo   | i) falta             | m) bilatu                   |
| b) izugarria           | f) indartzen | j) jasaten, nozitzen | n) nabarmendu               |
| c) errainuen           | g) konkretu  | k) gogorki           | o) arrastoekin, seinaleekin |
| d) abantailak          | h) modan     | l) errepaso          | p) neurri                   |

Euskal Herriko bizikletaren oinarria Eibarren kokatzen ahal dugu, hangoak baitira ORBEA, BH edo GAC bezalako marka entzutetsuak (7). Dena dela, herriko industria birplanteatzearen fruitu dira txirringa-enpresa horiek; izan ere, armak sortzen zituzten lantegiak ziren hirurak. XX. mendearen hasieran, I. Mundu Gerraren ondotik, armagintzaren industriak gainbehera itzela (8) izan zuen, eta, ondorioz, krisialdi sakonean murgildu zen. Egoera hartatik ateratzeko eta lantzen zuten gaia aprobetxatzeko asmoz, bizikletak egiten hasi ziren. Geroztik, marka horiek azkartzen (9) eta merkatuaren zati zabal bat bereganatzen joan ziren; hondarrean, armak alde batera utzi eta erreferentziatzeko ikur (10) bihurtu arte. Bide horretatik, Conor, Monty, Mendiz, Razesa... txirringula-etxe gehiago ere aurkituko ditugu Euskal Herriko historio ttikian.

Jakina da geurean txirringularitzari lotutako zaletasun handia egon dela eta badagoela, segur aski, hein (11) handi batean, bertako kirolari arrakastatsu eta txirringularitza-talde garrantziak eragina izan duelako: Orbea, KAS, Euskaltel, Caja Rural, Euskadi-Murias, eta abar bezalakoak ditugu kirol talde horien artean, eta Miguel Indurain, Marino Lejarreta, Txomin Perurena, Abraham Olano, Mikel Landa, Izagirre anaiak... txirringulari famatuena zerrenda luzean.

Gizonezkoen mundua gailendu (12) den arren, azken urteetan, emakumezkoenak presentzia handiagoa izatea lortu du. Horren erakusle, hona hemen emakume txirringularien aipamen batzuk: Joane Somarriba, Leire Olaberria, Irene Usabiaga, Mavi Garcia, Ane Santesteban...

Gaur egun, bizikleten mundua puri-purian (13) dago. Badirudi gisa horretan konpentsatu nahi izan dutela zenbaitek 2020ko konfinamenduak ekarritako askatasun eta mugikortasun eza (14). Eskaera igoera horri mundu mailako merkatuko gorabeherak gehitzen badizkiogu, egungo bizikleta-denden zein zale gosetuen arazorik nabarmenenarekin eginen dugu topo: stock faltarekin. Antza, txirringa-markek, kostuak merketzeko asmoz, Asiara eraman zituzten beren fabrikazio-prozesuak, eta, orain, garraio internazionalaren kolapsoaren ondorioak pairatzen (15) ari dira.

Kontuak kontu eta modak moda, poztekoa da halako berpizkundearen aitzinean egotea: askatasuna, osasuna, naturarekin bat egitea... Onurak (16) baino ez ditu ekartzen bizikletaz ibiltzeak. Deiiezaguzue ameslari nahi baduzue, baina munduko arma-lantegi guziak, bizikleta-lantegi bihurtuko ahal dira!



# JOLAS-NAHAS

## TXIRRINDULARIAK

Euskal Herrian betidanik txirrindulari harrobi emankorrek izan ditugu, baditugu eta espero dugu etorkizunean ere izatea. Haiekin, sorta bat prestatu dugu; badakigu anitzez gehiago badirela eta bilduma mamitsuki osatzeko moduan egonen ginatekeela. Ea txirrindulari bakoitza bere izenarekin parekatzen duzun, Etxetik Plazara-ren "mailota" irabaziko duzu!

a) Haimar Zubeldia

d) Irene Usabiaga

g) Mikel Nieve

j) Ion Izagirre

m) Ane Santesteban

b) Maribi Gartzia

e) Miguel Indurain

h) Peio Bilbao

k) Leire Olaberria

n) Txomin Perurena

c) Marino Lejarreta

f) Abraham Olano

i) Mikel Landa

l) Miguel Atxa

o) Joane Somarriba



1. ....



2. ....



3. ....



4. ....



5. ....




6. ....



7. ....



8. ....



9. ....




10. ....



11. ....



12. ....



13. ....



14. ....



15. ....



# ERANTZUNAK



## LAN eta LAN (3. or.):

1- Madrilgo/Madrileko; 2- Bartzelonar; 3- Valentziako; 4- norvegiar; 5- Veneziako; 6- doneztebar; 7- gasteiztar; 8- Bilboko; 9- Iizarratar; 10- Txinako; 11- estatubatuar; 12- Britainia Handiko; 13- errusiar; 14- danimarkar

## HITZAK DANTZAN (4. or.):

1- c; 2- i; 3- j; 4- f; 5- l; 6- g; 7- p; 8- a; 9- b; 10- d; 11- n; 12- h; 13- o; 14- k; 15- e; 16- m

## JOLAS-NAHAS (6. or.):

1- f; 2- g; 3- d; 4- e; 5- o; 6- l; 7- i; 8- m; 9- n; 10- h; 11- b; 12- c; 13- k; 14- a; 15- j

## 172. aleko sariketa erantzunak – BITXILOREAK (5. or.):

1- f; 2- i; 3- c; 4- p; 5- m; 6- a; 7- g; 8- h; 9- b; 10- k; 11- l; 12- o; 13- e; 14- n; 15- j; 16- d

## ETXETIK PLAZARA Ichiaketa

Gure Ichiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, 5. orrialdeko erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

173. aleko SARIA:

**ERRIGORA**  
Nafarroako produktuen  
sorta

172. aleko irabazlea:

**Arantxa Igoa Irigoien**  
Berroetakoa

**ETXETIK PLAZARA**  
liburua, **DEBALDE!!**

Eska ezazu,  
Bortziriak edo Malerrekako  
IKA euskaltegietan



<http://etxetikplazara.ivoox.com>

OHARRA: erantzunak ekainaren 30a baino lehen bidal itzazu.



## **SARIRAKO ARIKETA**

**BITXILOREAK (5. or.):**

1 - _____	7 - _____	12 - _____
2 - _____	8 - _____	13 - _____
3 - _____	9 - _____	14 - _____
4 - _____	10 - _____	15 - _____
5 - _____	11 - _____	16 - _____
6 - _____		

EP 173 (2021/06)



**ika**

euskara errazago egiten



# IRAKURttantta



## KASU EMAN: BIZIKLETAK!

- *“Ez da beste ezer, ez beste inor munduan bizikletak adina egin duenik emakumeen emantzipazioaren alde.”* - zioen Susan Anthonyk.\*

Eta Elizabeth Stanton\* borroka kideak gaineratu:

- *“Pedalei eraginez, emakumeak boto eskubiderantz goaz.”*

Mediku batzuek, Philippe Tissiek errate baterako, ohartarazi zuten bizikletak abortuak eta antzutasuna eragin zitzakeela, eta beste batzuen iritziz, berriz, lizunkeriatan ibiltzeko tresna lotsagabea zen, emakumeei plazera ematen zielako norberaren hankarteak eserlekuarekin igurzteak.

Kontua da bizikletaren kulpagatik emakumeak beren kasa ibiltzen hasi zirela, etxetik alde egiten zutela eta askatasunaren arriskuaren atsegin-poz txikiak gozaten zutela. Eta bizikletaren kulpagatik, halaber, pedalei eragitea galarazten zien gerruntze estua armairutik atera eta museoetara bidali zutela.

\*Feminista eta sufragista estatubatuarrek. Eskubide zibilen, emakumeen eskubideen eta sufragio unibertsalaren aldeko borrokan pertsonaia garrantzitsuak XIX. mendeko Estatu Batuetan.

Eduardo Galeanoren “Emakumeak” liburutik.

Itzulpena: Mikel Vilches



## ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefonoa:..... Adina:.....

## HORRA GURE HELBIDEAK

Bortzirietako IKA Euskaltea.  
Arretxea 22, 31770 Lesaka.  
[bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus)

Malerrekako IKA Euskaltea.  
Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.  
[malerreka@ikaeuskaltegiak.eus](mailto:malerreka@ikaeuskaltegiak.eus)

Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta  
Malerrekako IKA  
Euskaltegiak**

Marrazkiak:

**Joseba Larratxe**

Diseinua eta maketazioa:

**Raul Garcia Etxeberria  
Mathilde Brugiere-Garde**

Laguntzaileak:

**Nafarroako Mendialdeko  
EUSKARA  
MANKOMUNITATEAK**

